

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Lemoako Udala****Euskarako klaseak emateko udal-Araudiaren behin betiko onarpena**

2019ko azaroaren 6ko Ohiko Osoko Bilkurak «euskara eskolen Udal Araudia» behin-behin onartzeko erabakia hartu zuen.

Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 188tik 190era bitarteko artikuluetan, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49., 70.2 eta 111. artikuluetan ezarritakoa betetze aldera, espediente hori jendaurrean jarri zen 30 egunez, zegokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Horrenbestez, onarpena behin betikoa da, eta jarraian argitaratzen dugu Araudiaren testu osoa, indarrean sar dadin eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena) 70.2 artikuluan ezarritakoa bete dadin.

Lemoan, 2020ko otsailaren 12an.—Alkatea, Saioa Elejabarrieta Amorrortu

**EUSKARAKO KLASEAK EMATEKO UDAL-ARAUDIA****I. SARRERA**

Lemoako Udalak zenbait urte darama udalerriko biztanleei euskarako klaseak eskaintzen.

Euskararen Udal Zerbitzuak klase horiek jasotzeko herritarrek bete beharreko baldintzak arautzeko beharra hauteman du, eta horrez gain, egokia da klase horiek jasoko dituzten taldeen osakerari aplikatu beharreko irizpideak ere ezartzea.

Gauzak horrela, egokitzat jotzen da jarraian datorren araudia onestea, euskarako klaseei dagokienez.

II. XEDAPEN OROKORRAK**Lehenengo artikulua.— Lemoan erroldatutako ikasleen betekizunak**

Honako baldintza hauek bete beharko dituzte Lemoan erroldatuta egonik, Lemoako Udalak antolatutako euskara ikastaroetan izena eman nahi dutenek:

1. Matrikularen % 20 ordaintzea.
2. Hizkuntza-maila neurtzeko proba bat egitea, ikastaroaren arduradunek hala eskatzen dutenean.
3. Klaseen % 80ra bertaratzea eta aprobetxamendu egokia demostratzea ikasturte amaierako ebaluazioan.

Baja emango zaie klasera hilabetez inolako justifikaziorik gabe agertzen ez direnei.

Ikasturte bukaeran ez bada derrigorrezko % 80ko bertaratzea bete edo ikasleari baja eman behar izan bazaio inolako justifikaziorik gabe, pertson horrek ezingo du udalak eskainitako euskara klaseetan izena eman hurrengo bi urteetan.

Bigarren artikulua.— Lemoan erroldatuta ez dauden ikasleen betekizunak

Honako baldintza hauek bete beharko dituzte Lemoan erroldatuta egon ez arren, Lemoako Udalak antolatutako euskara ikastaroetan izena eman nahi dutenek:

1. Euskarako ikastaroa ematen dituen euskaltegian ordaintzea matrikula osoa.
2. Lemoako Udalarari 20 € ordaintzea ikasturte bakoitzeko.

Hirugarren artikulua.— Ikasleen taldeak osatzeko irizpideak

Irizpide hauei jarraikiz osatuko dira ikasle-taldeak:

1. Dagokien matrikula ordaindu izana.
2. Aurreko urtean ikasle izan izana.
3. Lehentasuna izango dute euskara-maila baxueneko taldeei.
4. Ikasle kopuru nahikoa egotea interesdunari dagokion mailako taldea osatzeko.
5. Hizkuntza-maila neurtzeko proba bat egitea, ikastaroaren arduradunek hala eskatzen dutenean.
6. Klasera bertaratzeko aukera izatea taldeak erabakitako ordutegian (egun guztietan).
7. Euskarako ikastaroetarako aurrekontua Lemoan erroldatutako pertsonen bano ez zaie bideratuko. Aurrekontu hori urtero zehaztuko da, kultura-eskaintzarekin batera.
8. Aurrekontuan aurreikusitakoak baino Lemoako herritar gehiago matrikulatzen badira, eta beraz, Lemoako Udalak ezin baditu denak ordaindu, zozketa egingo da ezarritako baldintzak betetzen dituzten artean.

Itxaron-zerrenda baldin badago, honela jardungo da interesdun horiekin:

- Itxaron-zerrendan daudela jakinaraziko zaie.
- Taldeak itxi baino lehen talderen batean sartzeko aukera badute, hizkuntza-maila egiaztatzeko proba egin beharko dute, talde horretan sartzeko maila nahikoa dute.



la demostratze aldera. Dagokion taldean ezarritako ordutegia errespetatu beharko dute.

— Inguruko beste udalerrik batzuen eskaintzaren berri emango zaie.

Laugarren artikulua.— Beste laguntza batzuekiko bateraezintasunak

Araudi honetan ezarritakoari jarraikiz Lemoako Udalak emandako dirulaguntza ekonomikoak ez dira bateragarriak izango udal honek xede bererako emandako beste laguntza batzuekin, 2016ko uztailaren 6ko Osoko Bilkuran onetsitako «Lemoako Udalak euskara ikasteko emandako dirulaguntzen araudia»n ezarritakoaren arabera.

